

tzak urten dabela-ta, bustafi bafiak estreñuagaz arin be arin dabiz eta bafari ta besteari danari entzuten yake ederto asartau deustela bustafioik eta alboefiko bustafigin edo Befitu'ko mutil gaste lirain ofek badau bai alabantzia edo gorakadia efi onetan eta ara ba neuk be zorionak.

Doazanak.

Plaza'tar Maria eta bere aista Emeteri neskatiā gastiak Lekio'ra euren bizibidera yoan yakuz. Ondo izateko izan daizela ta zorionak biyari, neuk be emastia albait safitxuen bialduko dot eurak bisitau ta zeozer erostera.

Barzelona'tik.

Etofi yaku egotaldi edefa eginda Gafamila'tar Martiña neskatiā liraiña. Ondo etofia.

Jayotzak.

Plaza'tar Dionisio'k eta beren emazte Lorenzak alabatxo bafia euki dabe ta ugutzakerak Jaana izena esafi dautse, aita bitxi ta amabitxiak izanik Plaza'tar Jose eta Plaza'tar Irene. Zorionak danori.

Baita semetxu bat euki dabe Goikoetxea'tar Jose Marik eta bere emazte Ufufiberaskoa'tar Eusebik be, eta bere aita bitxi Gabiola'tar Antonio eta ama bitxi Gabiola'tar Felipa eta mutiltxu oferi izena esafi dautse Sabin. Zorionak gustiori eta agur ufengorarte.

ARTA KANBARA

Zure ixena ta zuzenbidia ez dot artu edo ar tu badot galdu egin yat. Bialdu ufengoa.

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK

AUTONOMIA-24'gn. — ABANDO'n Igal edo fruta ta basoko zugatzak-Landa, ta ortu -azijak. Zimaufak; ko. kuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskixunak. Ortu ta barat-eredubak.

Mañari.

Elizkixuna.

Igande afatsaldian, garbitokiko arimen aldez elizkixun edefa egin zan; eta bertan, gure txauburu jaunak, berbaldi eder bat egin eban.

Irakasliaren alde.

Ilonen 27'gn. emengo elexan ospatuko dan meza nagosija, Arana eta Goiri'tar Sabin'an alde izango da. Abertzaliok, geure Irakasle matiaren alde otoiitz egifeko biarkuna dogula eztaigun aztu.

Juan-Etoijak.

Aramayona'ra juan ziran, Solaguren'dar Jon eta Bizkafa'tar Augustin mutiak.

Mendaro'ra Sarobe'tar Domeka Mirena mutia.

Igandian egon zan emen, Egia'tar Efamon Bilbao'ko abertzale zintzua, bere emazte ta umiakaz.

Luginak.

Aro-onagaz gari erelen diardue. Ta, egunontako egun edefak ikusita, Martin deuna portauko jakielakuan, pozik dabiliz. Solo-biafak egin arte ba, eguzkijak argi egingo al-dautsoe

«Aro-onian erein soluan garija, gonburu betetako aldijan sabaija».

Geitubaz.

Emengo E. A. B.'n igaroriko astian be, bazkide bafijak egin ziran. Eta, Batza begiko onetan, bazkide bafijak egitia, atsegingafi yaku. Auferantza goyazala ikusten dogu ta. Ia, datofen udabafijan edo, jai poli bat egiten dogun.

Miren-alabak.

Igandian, Miren-alabak, geure Batza'ko ileroko Jaunartzia euki gendun. Eta, Neskutza aintzalduteko gurariz, danok pozez bertaratu gintzazan.

Aintza geure Ama mañari!

Oiturari jarai...

Larunbatian, «Artzubi»ko Jagoba ta Sabin mutikuak, azkonar andi bat makila-puntan ebela etxerik-etxe ibili ziran. Eta, etxerik geyenetan, eskupeko poliak jaso ebezan. Bai-ba, olako piztijak artotzetan egiten dabezan kaltiak ez tira txikijak ixaten-eta. Batez-be, aurtent...

MAÑARIKO

Ibarangelu.

Eguraldiak.

Egunokaz egoki-egokiak daukuz; bai pozik artzen doguz guk basefitaok onelako eguraldiak, biar izana be aundia daukogu eura, eta aste au egingo baleuskigu ona, uste dot gari zati batzuk eregingo gendukezala, busti-samar dago lufa baña.

«Gerandape»ri.

¿Mindu egin zaitu mutil, emakumaren batek ala? ikusten daben, ez biar aundien bat izan dozu ain asafe ibilteko. Bategaz izan bozu asafia beraz egin biar dozu zeure «deskargia», eta ez erubakoakana jaurti zeure egur karga gustiori; ala ¿zeu mindu zaituela eta zeuk be bestiak mindu egin gura dozuz?

«Gero arte»ri.

Len Ibarangelu'ko idazliai «entzun» «entzunka» ibili ziñan, ankie sartun gurarik geugaz ezta bai dan asteko, eta guk jaramonik egin ezkeuntzun lez, ara nun irakufi neban lengo asteko EKIN'en Natxituafari ankie sartzen zabilizazela, jatzara zeu beintzat geldi egoteko egiñal Bai ba, izena be alakoxia daukozu-ta, oin zirikatu eta gero arte itxaron, etzara makala akularizat. Idi neurketarako iñoizko aldiz akularirik biar badogu, zeugaz gara, zeugaz seguru irabasiko dogu-ta, ¿etofiko ete zara?

Eskontzak.

Gure efi onetan zapafadie baño ez tana badabil eskontzak dirala-eta ez tirala. Len asko egin badiraz be, oindiño ez tira aspertu eta egun gitxi bafu bustertuko diraz Iribar'tar Deo itzarlari mutil zintzua, Arotegi'tar Pirmitebe neskatiā azkafagaz, eta baita laster eskontzen da Iturbe'tar Leon mutil azkafa baisen ona, Oar-arteta'tar Pilogaz, au Kortezubi'ko alabea. Itxuraz gorengo malan jafi leike, bitzuok abertzale zintzuak yatzuz. Zorionak euroi, ba uste dot sendiko zoriontasuna eurakan izango dabela. Asi ondo zeuen bizi bafi ori, amaiera obia emoteko.

¿Geiago be bai? Bai, A'gaz asten dan basetxeko mutil langile adoretu bat, B'gaz asten dan etxeko neskatiā bategaz eskontzen ei da, baña ¿nortzuk dirazen? ¿noiz eskontzen diran? zeuk igafi, neuk gustia esan barik.

LUGIN-ZAR

Eloño.

Itzaldijak.

Larunbat-gabian Euzko-langiliak itzaldi eder bat izan eban, Afa Aspiazu josulaunarena. Berak iñuanez, langilien elburuba auxe da: ondasuna, ogija ta euren jaubetasuna aurkitu ta lortutia. Lengo euzko-alkartasun zafetzaz edo kofradijetzaz be zerbait esan euskun.

Itzaldi eder ta mamintsua benetan. Poz-pozik entzun eta txalotu geban,

Igandian oneratu zan notintza aundijarentzat «Befio-Otxoa» antzokija txikija zala-ta, Ariño jaunak bere baratza itxi euskun. Bertan itz-egin eban Montzon, «Altzeta», Kareaga'tar Eskarne ta Afegi'ren Zubia'tar Aintzane'k. Aurkespena Zabala'tar Josu'k egin eban eta beti lez, egoki ta bixiro egin be.

Izlari guztijak batak baño bestiak obeto jardun eban; baña idazkitxo au geyegi luzetuko neuke ta, esan ebe-nik adierazotera enua, ixotz aundija

goitik-bera jausten egon afen, bijotzak euzko-mafasunez bero-bero eginda urten gebala baño. Zorionak izlari azkar ta bikain oneri! Etofi bafiro be ainbat lastefen, poz-pozik artuko zaubeguz ta.

Min-artu.

Txifingutz edo bizikletan ebilela jausi ta besua apurtu eban S. Pedro'tar Joseba'k. Ainbat lastefen osatua opa-dautsoe.

Ezpata-dantzarijak.

Gastetxu-Batzen ezpata-dantzarijak jafi biar ei dabez: ta eurai erakusteko Eibar'ko erakusliak bijartik etofiko ei dira.

Eskar ugarijak eurai emengo aberztalien ixenian. Zeubon lan ori guk biar dan lez ezin ordaindu geinketzubegu ta egunen baten EUZKADI, geure Amak, esku-zabalez ordainduko al dotzube.

Iapar baltza.

Jaungoikuak Beraganatu eban Lar-añaga'tar Meliton. (G. B.) On-ona zan da, efitafak bere erijotza min-ixan dabe. Bere seme-alabari geure samin-agufik bijotzetikuena.

Gexorik.

Pulmonijagaz, elexakuak artuta, aurkitzen da Irababal'dar Laurentzi. Obetotxuago dolala entzun dogu. Asko poztuten gara. Len-bait len guztiz osatuko al da.

Nazkaldija.

Donostia'ra, udaldija emen igarota, Untzeta jauna, bere emazte ta seme-alabakaz. Agur ta datofen urtera arte.

JARALE

Mungian, igandean.

Zapatu gaubian joanda Mungian eta inguruan igaro nabes domekia. Ikaragafia izan ei-da an, lengo asteko urioldia.

Ez dago ikusi baño noragiño eroan dabezan urak Arnagatik Zubibafira, bitarteko bitxabalen alde bietako ormak eta andik auferako bitxabaleko ari-piloak be.

Ainbat etxe ikusten ei-zirian itxas-erdian balegoz lez, etxe batzuetan balkoiragiño uriola elduten zala.

Etxe baten, txepetxak abian lez, ainbat ume ikusten ei-ziran galurpeko leyoan, negar baten.

Baña ezin iñor uferatu. Azkenez txalupatu baten norbaitzuek uferatzen asartu ziran.

Iñoz uriolarik bertara eldu ez dan etxe baten, Ikurton Deunak artunda egoan gexo bat; eta naikoa txar-to egoan beronen seme batek urioldea ogeraño igoten ikusirik, estukuntze andiaren erdian, ainbat gixonen laguntzaz etxiaren goiko bixitokiko oietara aldatuak izan ziran. Tamala benetan!

Andra bat solo bitarte baten ikusi zan berak ezekiela, urez inguratuta. Deadarka asi ei-zan esaten jene, galdue naz! eta bertatiko baten aurkitu zan gafiragiño uretan. Arimak ekafi ebela ei-diño berak, ara aufera gixon bat, indartsua ta asartua, eta arek igeri ein da atera ei-eban uretatik bixirik koitadia.

Aberetan ainbat ito ta ainbat eroan be egin ei-zituan urak.

Asto bat kortan lotuta itxi ebela-ko, itota aurkitu ei-eban.

Amar afoako txafi bat be urak eroan.

Olotan, bafiz, bastefak... eta abar.

**

Baña egun negargafi ofetan, aberien artian be izan ei-dira bafegafi edo komediantiak.

Etxe bateko astoak, mustufera ura eldu yakonean, igon etxearen goiko gela batera, ta balkoia baño gorago-ko leyo baten ikusten ei-zan urioldi-ari begira.

Beste etxe baten, txafi bat urak

eroan eutsiela-ta negafez ei-egozan, baña poztu ei-ziran auzoko batek, uriolak eroan eban txafie, auzoko ortu baten, asa artian geratu zala-ta tenplau, nobedade barik, osasun edefagaz asak yaten ziarduala esan eutsienean.

**

Igandean, goixean-goiz yagi nintzan eta Andra Mari'ko elexara yoan nintzan mesa entzuten.

¿Zelako meseal Zerutar ospetasuna, zerutar usaña biotzak artuten eustan.

¿Atsegintsu egin yatan!

Iru ordulauren igarota oindio bost minuto ez zirala uste neban.

Elexa bete neskatiak aingeru oyukaz lez ¿baña zelan abestu? Soñu edefen erdian. Entzungafia benetan! Abesti bitartietan eusko-sermolari batek esaten ebazan zerutar argitasunez adiñak betetan euskuezan egiak, siñiste bixi-bixi ta itxaropen atsegintsuz biotzak betetan euskuzala.

Ez nengon zeruan. Baña bai zerua-en ufengo toki zorionsuan. Ez dot damu an egona.

**

Eizlari lez ibiltaldia egin eta iruretako bafiro nengoan Mungian. Bazkaldu ta plazaruntz.

Goixean eleizan ikusi nituan neskatiak ikusi nintun plazan. Laster ezautu be.

Irakastetxe aundi edo kolejio on batetik urtenak dirala esan leike. Euren egokera, ibilkera, jantzikera, berbete ta jolasketa gustiak ziran alako emakume on, lirain, zur, bururen yaube izan oi-diranenak. Dantza garbia egiten eban.

Goralben biotzetikoak eurai.

**

Itxirik, beste egun batera arte, ain biotzetiko ta ain begi-begiko egin yatan Mungia; il nebazan txonta biak, bost txirtak eta sei artatxoriak artuta, etofi nintzen neure txinbo efira, baña ez yat kenzen arimatik atsakabe ostian (urioldia dala-ta), an igaro nabes egun zorionsua, eta esaten dot: Biar bada, urioldiak ez dau gizonik eroan neskatiā an aren efeguak Jaungoikoaren asafia baketu dabela-ko. Onetariko neskatiak gaitz aundiak kendu ta on andiak ekarten dabez efietara.

SASPI KALIETAKO EIZLARI GAZTE BAT

Bilbo'ko saspi-kalietan euskaldun trebeak zirala bagenkian ta emen bat nun agertu yakun. Jarai aufera. EKIN'eko atiak zabal zabalik daukoaz.

Gogo-iñarkunak.

Igandian eta Jaunartze orokar edefagaz amafu ziran Goikoetxea Abe, Afatiar Josulaun agurgafijak, efi onetako neskatiā emon dautsiez-zan gogo-iñarkun edo ejerzizioak.

Gogo-iñarkunak egin dabezanak ilian baten ixil-eguna egitia erabagi dabe, eta egun ofeitako Goikoetxea Abe etofiko dalakua be entzun dogu. ¿Ederto be ederto deritxogu! ¿Asmo txalogafia ziñez!

Benetan edefa ixango da efiko neska gustijak eginkixun eder ofetarako batutia.

Etxe-aldantza.

«Lafagane» basetxeko Isidor, «Lafatxueta»ko basetxera juan zan bixifen igaro dan ilean.

Obeto.

«Bastafetxe»ko Menike'tar Ilari, aldi luzetxuan gaxorik egonda, egunotan oetik jagiten dala entzun dogu. Asko poztuten gara.

Azoka.

Igaroriko larunbateko merkatuan saneufi onixek izan ziran:

Afautzak 4,50 laurleko amabikua, piper gofi efetakuak, 8 txakufian amabikua, berakatzak, 3 txakur amabikua, azak, 3 ta 4 txakufian

bakotxa, lusagafak (patatak) 2 ta 3 txakufian kilo, gaztañak, laurleko 2 zelemiña, oliak 10 laurlekotik 15'ra bikua, sagar urdife edefa 10 laurleko kinfala.

Goiko kalean.

Arantzamendi'tar Eukeni, mutil gaste ta abertzale onak, onetakuak konpondu eta adabatuteko, lantegi bafi bat imiñi dau Goiko-kalean.

Irabaste aundijak opa-dautsoe Eukeni zintzua'ri.

MATE, E. A. B.

Beriz.

Pelota tokija;

Igaro dan asteko jardun geyenak, batez be gastienak, pelota toki bafija dala ta ez tala izan dira. Ba sufu mufua dabil emen laister asiko dirala lanak jolas-toki bafi ofenak. Guk geuk ezin geinke gauza on ez safik esan toki aitaturuagaitik, baña biar bada, bai, egiteko ustia dauan inguruagaitik; geure ustez, ez talako toki ain beartua egikisun ofetarako. Beste efi batzuetan be ausokunetan barik udal-etxe eta eleiz alde inguruan egiten ditue onetariko yolas tokijak, efitar gustiyentzako izan deitezana.

Bitxabal zabalkuntza.

Asi Matijenen eta Zaldibar'erarte diarduen bitxabal zabalkuntzako lanok aufera doiaz, baña ondiño datofen udarako lain lan be eukiko ei dabe, aurtent baño obeto eguraldijak lagunduten ezpadeutse.

Emakume A. B.

Lanian asi jakuzemakumiok. Eri onetan be ta laister islaritxuen bat be ekafiko ei deuskue.

Muslariyen txapelketa.

Lengoañ emengo gaste batzuk musean ekin eutsen, baña ¿zelango abilediegaz? Lau Efegegaz (1) esku-tik parietara enbido, gure baño nai ezebana be ei-zan.

B. EDO B.

[1] ¡Auri de «onarkikue!» Ostabe etofiko dira Efepublikak, Efege gustiyak olan batzen ba'ditu.

Bakio.

Ila onen 11'an egun lafi ta estua Bakio'tafak izan eban. Zaspirak izango ziran trumoya ozka, onastuak txiristadaka ta euria mamintsu jausten asi zan ordua. Zaspi eta erdie-tako Jata mendiak bera ziar zetorzan uriolak, Bakio'ko zelaia aidanpara biurtu eban.

Asi zan ura etxietara sartzen ezertarako astirik emon бага. Estu ta lafi ikusi izan ziran gure lugin zintzoak, abere ta gauzak jaboteko.

Zubiar-basetxeko Anis'ek izan ebazan kalte andienak. Beyak eta txakolin bafikak (upelak) urak eroan, arto-kaxeari etxe bafuan bira emon eta korteai lufa jo erain. Uriolak bidean, soloan eta basoan aurkitzen eban gustia ekafen. Piper, kalabaza, lasto-ondo, egur eta baita ler edo piñu andiak be. Piñu oneik izan ziran Anis'en etxe onduan aurkituten zan zubi bafiaten begia itxita, aitaturiko Zubiar etxera urak bialdu zituzana. Azkenean zubiari be lufa jo erain eutson. Añenakin zubi au efeta egoala-ta, kalte danen efudun ipiñi dau atso batek zubi, iñuala: «Befafak jaurtiko maldeziñoakaitik au jazo da». ¿Befafok arduraz ibili zaitzeze añenakin, bestela zuzenduten ezpazarie zeru-goitik sua jatsiko-da.

Parla lafi izan zan Jose K. bere aizkidea iño zalakoan; baña Jaunari eskefak olo batzuk ziran itoak. Iko adafetara igonda afatoiak añokoak salbau dira.

Bizkai-Erasketxea.

Zar ta umeen jaya ospatuta, igandean Pujeneko etxean igiri zan Biz-